



OHIKO BATZAR OROKORRAREN AKTA ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA

Casares Kultur Etxean, 2005ko otsailaren 12an, Altzako Historia Mintegiaren Ohiko Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion goizeko 10.30etan, ondoko partaide hauekin: Jon Serrano, Antxon Alfaro, José Mari Cendoya (Mari Paz Sainz Ubarrechenaren izenean), Luis Mari Raya, Kepa Amondarain, Lazaro Altuna, Javier Cantera, Juan Carlos Mora, Josetxo Mangas, Angel Almeida, Jose Ignacio Ferrer, Angel Calvo, Joaquin Garrido, eta Iñigo Landa.

En la Casa de Cultura Casares, a las 10.30 de la mañana del día 12 de febrero de 2005, se celebró la Asamblea General Ordinaria de Altzako Historia Mintegia con la participación de Jon Serrano, Javier Cantera, Antxon Alfaro, José Mari Cendoya (en nombre de Mari Paz Sainz Ubarrechena), Luis Mari Raya, Kepa Amondarain, Lazaro Altuna, Javier Cantera, Juan Carlos Mora, Josetxo Mangas, Angel Almeida, Jose Ignacio Ferrer, Angel Calvo, Joaquin Garrido, e Iñigo Landa.

1. Aurreko Batzarren aktaren onarpena / Aprobación del acta de la Asamblea anterior

2004ko urtarrilaren 31eko Ohiko Batzar Orokorraren akta onartua izan zen.

Se aprobó el acta de la Asamblea General Ordinaria celebrada el 31 de enero de 2004.

2. 2004. urteko memoriaren onarpena / Aprobación de la memoria del año 2004

Batzarrean, AHMren funtzionamenduan bi maila bereiztearen beharra ikusi zen, jarduerak, alde batetik, eta elkartearen antolaketa bestetik.

Antolaketa inguruan hausnarketa sakona egin zen eta arazo larri batzuk detektatu ziren, batez ere elkartearen etorkizunari begira jartzen bagara:

- Casares kultur etxea eta AHM-ren artean dagoen identifikazioa: honek jendearen nahasmena dakar eta gure burua ere mugatu egiten du. Hau saihesteko modu bat elkartearentzat lokal propio bat eskuratzea izan daiteke, gure elkarte izaera sendotuko bailuke.
- Bazkideen arteko komunikazioa eskasa: AHM elkarte bezala indartzeko arlo hau indartu beharra dago, adibidez, egun arruntak bihurtu diren telefono mugikorra eta posta elektronikoa erabiliz. Batzarren artean beste bilera bat egitea izan zen aipatutako beste modu bat; batzarretan hartutako erabakien jarraipena egitea izango zen helburu nagusia.

Jardueri dagokienez, ondoko memoria onartu zen:

En la Asamblea se vio la necesidad de diferenciar dos niveles diferentes dentro del funcionamiento general de AHM. Uno sería el de las actividades y otro nivel el de la organización.

En lo que a este último se refiere, se hizo una reflexión seria y se detectaron dos problemas que pueden complicar el futuro de la asociación:

- La identificación de AHM con la casa de cultura Casares: confunde a la gente y nos limita en nuestro funcionamiento. Esta situación se podría evitar, entre otras medidas, dirigiendo nuestros esfuerzos a la búsqueda de un local social.
- Deficiente comunicación con los socios-as: AHM se vería reforzada con una mejora significativa en este aspecto utilizando, por ejemplo, el teléfono móvil o el correo electrónico. Otra propuesta que fue aceptada fue la de convocar una nueva reunión entre asambleas para hacer un seguimiento de las decisiones tomadas y de los temas tratados.

En lo que a las actividades respecta, fue aprobada la siguiente memoria:

MEMORIA

□ Altzako Tokiko Bilduma / Colección Local de Altza [Juan Carlos Mora]

Altzako komunitateari buruzko material, fondo eta informazio-iturrien berreskuratzea, zaintzea eta zabaltzea da Tokiko Bildumaren helburu nagusia, Casareseko liburutegitik ematen den zerbitzua osatuz.

DOKUMENTUEN BILKETA: Aurten jaso dugun materiala hiru ataletan zatituko dugu:

- Historia-dokumentuak: Artxiobetako materialez osatua (protokoloak, aktak), jaso dugun kopurua 110 dokumentu da. Jatorria: Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, Donostiako Udal Agiritegia eta Errenteriako Udal Agiritegia.
- Administrazio-materiala gehi argazkiak: Altzako elkarte, talde, jende eta erakundeek aurreko urteetan sortuta (eskutitzak, foiletoak, programak...), 430 dokumentu inguru jaso dira, argazki zaharrak barne.
- Egungo ekoizpena: Altzako edozein jendek eginiko, sortutako edota Altzarekin loturiko informazio-materiala (posterrak, eskutitzak, aldizkariak, artikulak...). 235 dokumentu.

A.T.B.-n dagoen dokumentu kopurua: 4840. Kontuan izan behar aldizkari kopurua bakarra dela, nahiz eta ale batzuk izan.

KATALOGAZIOA: Access 2000 deituriko datu basean sailkatu dira hurrengo dokumentuak: 110 agiri historiko; 270

El objetivo de la Colección Local es recuperar, conservar y divulgar todo aquel material relacionado con la comunidad altzatarra, como un servicio complementario de la biblioteca de Casares.

RECOPIACIÓN DE DOCUMENTOS: El material reunido este año es el siguiente:

- Documentos históricos: hasta un total de 110, protocolos y actas, procedentes de estos archivos: Archivo General de Gipuzkoa, Archivo Municipal de Donostia y Archivo Municipal de Errenteria.
- Material administrativo y fotografías: producido por las asociaciones, grupos varios, personas y organizaciones altzataras en tiempos pasados (cartas, folletos, programas...). Un total de 430, fotografías incluidas.
- Producción actual: material informativo referente a gente de Altza (posters, cartas, revistas, artículos...). 235 documentos.

Hasta el presente, en la Colección Local llevamos reunidos un total de 4840 documentos. Conviene observar que las revistas sólo se contabilizan una por cabecera, aunque haya varios números de cada.

CATALOGACION: Hemos catalogado el material en una base

argazki; 90 foileto; 90 aldizkari artikulua; 45 kartel; 60 administrazio-agiri; 10 festa-programa.

HEDAPENA: Beste urteetan bezala, Altzako elkarte eta taldeekin harremanetan jarraitzen dugu (emakumeak eta jubilatua batez ere). Kanpoko kolektiboekin gure esperientzia eraskusteko bildu garelako aipatu behar. AHM-k argitaratzen duen Estibaus boletinean berri esanguratsuenak ezagutzera ematen dira. Aurten ere Altzako ikastetxeetara Casareseko bilduma esplikatzera joan gara.

KONTSULTA-ZERBITZUA: 131 kontsulta izan ditugu 2004. urtean zehar, 2003. urtean baino 7 bisita gutxiago. Telefona, e-maila eta bertako bisita kontsultak egiteko erak dira.

de datos Access 2000 110 documentos históricos, 270 fotos, 90 folletos, 90 artículos de revistas, 45 carteles, 60 documentos administrativos, 10 programas de fiestas.

DIVULGACION: Como en años anteriores hemos continuado manteniendo el contacto con las asociaciones y grupos de Altza, sobre todo con grupos de mujeres y jubilados. También nos hemos reunido con colectivos de fuera para transmitir nuestra experiencia. Las noticias más significativas del boletín Estibaus también se dan a conocer. Este año también nos hemos dirigido a los centros escolares para dar a conocer los contenidos de la Colección Local.

SERVICIO DE CONSULTA: A lo largo de 2004 hemos recibido 131 consultas, 7 menos que el pasado 2003. El teléfono, el correo electrónico y en persona han sido las fórmulas utilizadas.

□ **Ganbara Bilduma [Javier Cantera]**

Altzaren festa nagusian murgildurik, ekainaren 25etik uztailearen 2ra arte San Martzial parrokiaren beheko lokaletan Ganbara Bildumaren erakusketa eratu genuen. Bildumaren helburua altzatarren oroimena zaintzea da, gure iragana gertuenaren eguneroko tresnaz baliatuz.

Erakusketaren antolaketan AHMko bederatzik kide hartu dute parte, irudimena eta trebetasuna behar izan dituztenak honelako erakusketa batek dituen xehetasun guztiak zaintzeko eta ahal den modu hobereanean aurkezteko.

Horrez gain, San Martzial parrokiaren laguntza izan dugu, ekain osoan bere lokala gure eskuz utziz, eta, bestalde, Herrerako Auzotegiarena, apirilean eta maiatzean zehar prestaketak egiteko bere lokalak utzi dizkiguna.

Bisitari asko egon ziren, denetara 554 zenbatu genituen, gehienak aurkezpen egunean eta San Martzial eta Santa Isabel egunetan.

Objektuak, oihal gorritz tapizaturik zeuden mahai luzeetan jarriak zeuden, bakoitza zapi koloretsu baten gainean. Paretetan ere apalak jarri genituen objektu txikiak edota babestuago egotea nahi genituenak jartzeko. Era berean, kartelak jarri genituen objektu multzo bakoitzaren izenburua adierazteko eta giroa sortzen lagungarriak ziren iragarki zaharren erreproduzioak.

Objektu guztiak hamahiru multzotan bildurik zeuden: erlijioa, ikasketak, jostailuak, garbiketa, konfort ez elektrikoa, materiale elektrikoa, zerrailak, erremintak, iturgintza, sukaldea, etxea, elektragarriak, dokumentuak.

Erakusketa girotzeko, 50. eta 60. hamarkadetakoa irratiragarki eta doinuak bilatu eta bildu genituen erakusketa bertan entzuteko.

Azkenik, katalogo bat prestatu genuen erakusketan zeuden objektuen izena, marka eta, ahal izanez gero, egitearen data eskainiz.

Oro har, oso pozik geratu ginen erakusketarekin: Ganbara Bilduma ezagutarazi genuen eta jendearen erantzuna oso ona izan zen, bisitatu ez ezik tresna berriak ere helarazi zizkiguten eta.

La fiesta mayor de Altza fue la ocasión elegida para llevar a cabo la exposición de la Colección Ganbara, concretamente, del 25 de junio al 2 de julio. El objeto de la colección es conservar la memoria colectiva altzatarra a través de los objetos domésticos de nuestra historia más reciente.

En la organización contribuyeron nueve miembros de AHM que tuvieron que echar mano de mucha imaginación y habilidad para cuidar al máximo los detalles y conseguir, al fin, una exposición más que digna.

Además, contamos con la colaboración de la parroquia de San Marcial, que nos cedió el local todo el mes de junio y, también, tuvimos la ayuda del Auzotegi de Herrera que nos dejó un choco en los meses de marzo y mayo para que pudiéramos llevar a cabo los preparativos.

La exposición fue muy visitada. Contamos 554 personas, y los días con más visitantes fueron el de la presentación, San Marcial y Santa Isabel.

Los objetos estaban expuestos en mesas largas, tapizadas con una tela de color rojo burdeos, y trapos de distintos colores debajo de cada objeto para realzarlos. En las paredes, se montaron unas baldas para exponer los más pequeños o delicados. También se pusieron carteles indicativos de cada familia de objetos, y publicitarios de época para ambientar.

En total, eran trece los grupos expuestos: religión, estudios, juguetes, aseo, confort no eléctrico, material eléctrico, cerrajería, herramientas, linternería, cocina, hogar, electrodomésticos, documentos.

Para ambientar la exposición se buscó música de los años 50 y 60, y anuncios radiofónicos.

Por último, se preparó un catálogo donde se recogía el nombre del objeto, marca y, a ser posible, la fecha de fabricación.

En resumen, la exposición fue más que satisfactoria: dimos a conocer la Colección y la respuesta de la gente fue muy buena, ya que también sirvió para recoger algún objeto nuevo.

□ **Ikerketa Beka / Beca de investigación [Iñigo Landa]**

Aitor Cerezo historialari gazteak "Altza II. Errepublikan (1930-1936)" ikerketa lana burutzen aritu da, marko historikoa eta udaltxeko aktak aztertuz. E-mailak Altza, Hautsa Kenduz VIII liburuan argitaratuko dira.

El joven historiador Aitor Cerezo está trabajando el tema de la IIª República en Altza (1930-1936) a través de las actas municipales. Cuando finalice la investigación se prevé publicarla en el próximo número de Hautsa Kenduz.

□ **Argitalpenak / Publicaciones [Iñigo Landa]**

- "Altza, Hautsa Kenduz" VIII liburua argitalpena prestatzen jardun dugu, artikulua idatziko dituztenekin harremanetan.
- Estibaus Buletina: aurreko urteetan bezala lau zenbaki kaleratu ditugu, 500 aleko tirada eginez.
- Egutegia: 2005. urteko egutegia argitaratu dugu Manuel Martínez Andion-en argazkiekin. Tamaina handiko egutegiak (A3) 1000 aleko tirada izan du eta poltsikoak 1.500. Herriko olentzeroetan, dendetan eta kultur etxearen bitartez banatu dira.

- Hemos trabajado en la preparación del nuevo número de Hautsa Kenduz, buscando contactando con los colaboradores.
- Boletín Estibaus: Como en años anteriores hemos publicado cuatro números, con una tirada media de 500 ejemplares.
- Calendario: Se han repartido cerca de 1000 calendarios grandes y 1500 pequeños, ilustrados en esta ocasión con fotografías de Manuel M. Andion. El reparto se hizo aprovechando los diferentes olentzoros de Navidad, los

comercios y los centros culturales.

❑ **Lekukoak / Testigos [Antxon Alfaro]**

Altzaren historian errotua egon da bertsoari zuzen inguruko zaletasuna. Hutsune nabarmena gertatu zaigu gai honen inguruan bertsoari eta bertsozaleen lekukotasuna ez geratzea, edo gutxienez ez guk nahi genukeen adina. Beraz, berandu baino lehen, zaletasun horren testigantza jaso nahi izan dugu eta, horretarako, Felixiano Udakiola-rengana jo dugu, Altzako Lardi-txiki baserrikoa. Felixianoaren lekukotasuna etorkizunerako modu hobereanean gordea geratzeaz arduratu den taldea hau izan da: Luis Mari Ralla, Urtzi Alfaro, Xabier Bermudez eta Antxon Alfaro.

La afición al bertsoarismo está enraizada en la historia de Altza. Se ha producido, sin embargo, un grave vacío en este campo con la pérdida de importantes testimonios de bertsoaris y bertsozales. Es por ello que, antes de que se pierda irremisiblemente toda huella de esa época, hemos querido recoger los testimonios que aún quedan y empezar con un hombre de una memoria prodigiosa y buena voz. El grupo que se ha encargado de que la grabación se haga en las mejores condiciones está compuesto por: Luis Mari Ralla, Urtzi Alfaro, Xabier Bermudez y Antxon Alfaro.

❑ **Excursiones / Ibilaldiak [Angel Calvo]**

- Apirilaren 24 eta 25 egunetan txango bat egin genuen Errioxara, bisita egitasmo zabal batekin: Monasterio de San Prudencio de Monte Laturce, Clavijo-ko gaztelua, Santa Maria de Rute, Navarrete-ko erromanikoa, Nalda, San Esteban de Viguera, Castañares de las Cuevas, San Pedro ermita, San Andres eta Torrecilla de Cameros-ko parrokiaren museoa, eta Naldako usategiak. Ibilaldia Pilar Pascual eta Pedro García errioxarren gidaritzapean egin zen eta "Asociación Cultural de Nalda" elkartearen laguntza izan genuen.
- Azaroaren 6an, Nafarroako Izagaondoara joan ginen, Peña Izaga (1346 m.) tontorra igoaz eta leku hauek bisitatu: Artaiz-ko San Martin, Izagako San Migel, Legingo gaztelua, Indurain eta Mendinueta, Beroiz eta Aizpeko desolatuak.
- Bi asteburu Artikutzan, bat urte hasieran (martxoaren 19tik 21-era) eta beste bat urte amaieran (abenduaren 6tik 8ra), bertako natur eta etnografi interesguneak ezagutzeko.

- Realizamos una excursión a La Rioja los días 24 y 25 de abril, visitando los siguientes sitios: Monasterio de San Prudencio de Monte Laturce, castillo de Clavijo, Santa Maria de Rute, románico de Navarrete, Nalda, San Esteban de Viguera, Castañares de las Cuevas, ermita de San Pedro, San Andrés y el museo parroquial de Torrecilla de Cameros, y el palomar de Nalda. En el recorrido contamos con la ayuda y guía de los riojanos Pilar Pascual y Pedro García y de la "Asociación Cultural de Nalda".
- El 6 de noviembre, nos dirigimos al valle de Izagaondo, Navarra, ascendimos a la Peña Izaga (1346 m.) y visitamos los siguientes lugares: San Martín de Artaiz, San Miguel de Izaga, castillo de Legin, Indurain y los desolados de Mendinueta, Beroiz y Aizpe.
- Hemos ido dos fines de semana a Artikutza, del 19 al 21 de marzo, y del 6 al 8 de diciembre, y disfrutamos así de los valores naturalísticos y etnográficos del enclave.

❑ **ALTZANET [Antxon Alfaro]**

Aurreko urtetan egindako jarduerekin, aurten ere, jarraitu dugu. Orokorrean, esan dezakegu markatutako helburuak neurri handi batean lortu dira. Egindako ekintza nagusiak hauek izan dira:

- ❑ Urtean zehar Altzan antolatutako diren ekintzen informazioa era digitalean eskaini dugu: web gunearen edota posta elektronikoen bidez.
- ❑ Web gunearen orri nagusian aldaketak egin ditugu askoz dinamikoagoa izan dadin eta Altzako errealitate soziala eta kulturala hobeto islatzeko.
- ❑ Helbide elektronikoa, altza.net domeinuarekin, elkarte eta herritarren artean dohainik banatzen jarraitu dugu.
- ❑ Hiru posta zerrendak kudeatu ditugu: altzanet@altza.net, altza21@altza.net eta plana@altza.net.
- ❑ AHMren web gunearen kudeaketa egin da. Atal honetan aipatu behar dugu GANBARA Bilduman jasota dauden tresnei buruzko informazioa Interneten bidez modu egoki batez saiatzen ari garela eskaintzen.
- ❑ Estibus buletinaren edizio elektronikoa eskaintzen jarraitu dugu.
- ❑ Altzako Komunitatearen Garapenerako Plana parte hartzen ari garenez, Altzanet proiektuan dauden baliabide teknologikoak plan honen zabalkuntzaren alde jarri ditugu.
- ❑ Hurbilketa txiki bat egin dugu SMS mezuek (telefono mugikorrek erabiltzen direnak) dituzten informazioa zabaltzeko aukeretara. Datorren urtean gai honi garrantzi gehiago eman behar diogu.

Ez litzazuke gustatuko bukatzea aipatu gabe neurri batean proiektuaren garapena baldintzatzen duten bi egoera hauek: EDONOSTIA.NET Teknologia Berrien Zentzuarekin dugun elkarlan eskasa, eta Donostiako Udalaren dirulaguntzak kobratzeko zailtasunak, adibidez, oraindik iazko dirulaguntza jaso gabe dago.

Hemos continuado con la dinámica de años anteriores. En líneas generales podemos decir que los objetivos marcados se han cumplido en gran medida. Las principales actividades llevadas a cabo son estas:

- Hemos ofrecido información en formato digital de las actividades organizadas en Altza, a través de la página web y del correo electrónico.
- Hemos realizado modificaciones en la página inicial con el objetivo de hacerla más dinámica y que refleje lo mejor posible la vida social y cultural de Altza.
- Hemos continuado extendiendo de forma gratuita entre las asociaciones y vecinos el uso del dominio altza.net en el correo electrónico.
- La gestión de tres listas de correo: altzanet@altza.net, altza21@altza.net eta plana@altza.net.
- La gestión de la página web de AHM. En este apartado señalar que hemos empezado la digitalización de la colección GANBARA con el objetivo de ofrecer el fondo de esta colección a través de Internet.
- Edición electrónica del boletín Estibus.
- Como participantes que somos del Plan de Desarrollo Comunitario de Altza, se han puesto a disposición del dicho plan los medios tecnológicos de que disponemos.
- Hemos realizado un acercamiento al uso de mensajes SMS, utilizados por los teléfonos móviles, en la difusión de información sobre Altza y las asociaciones. Dadas las posibilidades de esta nueva tecnología el próximo año le dedicaremos una atención especial.

Por último, comentar dos aspectos que están condicionando el desarrollo del proyecto Altzanet: la colaboración casi nula con el Centro de Nuevas Tecnologías EDONOSTIA.NET y la dificultad de hacer una mínima planificación debido al funcionamiento del Ayuntamiento de Donostia en el tema de las subvenciones, ya que la notificación de la subvención municipal del año 2004 la hemos recibido a finales de Enero (todavía no se ha recibido ni

un solo euro).

□ **Kanpoko harremanak, finantziarioa eta bazkideak / Relaciones exteriores, financiación y socios-as [Jon Serrano]**

HARREMANAK:

- Azken urteetan prestatzen aritu garen Dokumentazio Zentroa gauzatzeko laguntzeko asmoz Donostiako hainbat zinegotzirekin bilerak egin ditugu (Etxezarreta, Rodriguez). Alkatearekin ere saiatu gara baina honek ez gaitu hartu. Hala ere, Donostia Kulturaren partetik proiektu honentzako ezezkoa jaso dugu eta orain arte bezala jarraitzeko erabakia.
- Altzako Euskararen Plan Estrategikoarekin lanean jarraitu dugu.
- Udalak bultzatutako Plan Komunitarioaren inguruan sortu den aktibitatean murgildu gara.
- Bestelako elkarteak: Herri Ametsa Ikastola (Altzar hiztegia), Herrera Herri Ikastetxea, Pasaiako Portua, Altxa XXI, Auzotegia, Auzoa-merkatarien elkarte...
- Partikularrak: Peio Amiano, Imanol Inziarte, Pilar Tejada, Eduardo Esnal, Pepe Sarriegi, Luis Chillida, Escoli Galardi, Martin Baigorronotegui, José Belarrain, Paco Sagarzazu.

FINANTZIAZIOA:

Gure jarduera aurrera eramateko finantziario nahikoa lortu dugu. Gorago esan bezala, saiatu gara Donostia Kulturarekin beste sistema koherenteagoa eta sendoagoa baina alperrik. Aurreko urteekin aldenuz, aipatu behar da Ganbara erakusketa gauzatzeko udaletik jaso dugun ez-ohiko diru-laguntza eta, beka deialdirik egin ez dugunez, Kutxaren diru-laguntzaren gutxitzea.

BAZKIDEAK:

Elkartea handitzen jarraitu du 2004. urtean, hamar bazkide berrien eskaera dela medio: MIREN IRURETAGOiena IÑARRA, MANOLY PULIDO FRANCO, JUAN MARI FERNANDEZ CALVO, JOSE GUILLERMO LOPEZ IRIGOYEN, BORJA LEOZ ZALDUA, NEKANE EIZAGIRRE INTXAUSPE, VICENTE INDAVEREA PUY, ANGEL ALMEIDA SEISDEDOS, NIEVES MARTINEZ MENDEZA, JOSE IGNACIO FERRER GONZALEZ. Urteko Batzar Nagusira begira hiru bazkideen baja aurreikusten da: M^a Aranzazu Martinez Solana, Francisco Javier Lopez de Luzuriaga, M^a Gemma Belascoain Balenciaga. Azken hau berak eskatuta eta aurreko biak kuota ez ordaintzeagatik.

RELACIONES:

- Con el objeto de buscar el respaldo definitivo para el proyecto de Centro de Documentación elaborado por AHM, hemos mantenido reuniones con concejales de Donostia (Etxezarreta, Rodríguez) que han sido del todo infructuosas. Intentamos también reunirnos con el alcalde pero no nos recibió. Donostia Kultura no ha aceptado nuestro proyecto y sólo nos ha ofrecido continuar como hasta ahora.
- Hemos participado en las reuniones del Plan Estratégico del euskara, y del Plan Comunitario-
- Otras asociaciones: Herri Ametsa Ikastola (Diccionario altzatarra), Colegio Público de Herrera, Puerto de Pasaia, Altxa XXI, Auzotegia, asociación de comerciantes Auzoa...
- Particulares: Peio Amiano, Imanol Inziarte, Pilar Tejada, Eduardo Esnal, Pepe Sarriegi, Luis Chillida, Escoli Galardi, Martin Baigorronotegui, José Belarrain, Paco Sagarzazu.

FINANCIACION:

Hemos conseguido la financiación suficiente para desarrollar nuestras actividades. Como ya hemos señalado, hemos buscado un nuevo marco de relaciones con Donostia Kultura de cara a conseguir un sistema de financiación más coherente y estable, sin resultados. A reseñar la subvención extra proporcionada por el Ayuntamiento para la exposición de Ganbara y, al no haberse realizado una nueva convocatoria de beca, la reducción de la ayuda de Kutxa.

SOCIOS-AS:

La Asociación ha continuado creciendo a lo largo de 2004, y cuenta con diez nuevas solicitudes: MIREN IRURETAGOiena IÑARRA, MANOLY PULIDO FRANCO, JUAN MARI FERNANDEZ CALVO, JOSE GUILLERMO LOPEZ IRIGOYEN, BORJA LEOZ ZALDUA, NEKANE EIZAGIRRE INTXAUSPE, VICENTE INDAVEREA PUY, ANGEL ALMEIDA SEISDEDOS, NIEVES MARTINEZ MENDEZA, JOSE IGNACIO FERRER GONZALEZ. En la Asamblea General se presentarán tres bajas de socios-as: M^a Aranzazu Martinez Solana, Francisco Javier López de Luzuriaga, M^a Gemma Belascoain Balenciaga. Esta última voluntaria y los anteriores por impago de cuotas.

3. 2004. urteko kontuen onarpena / Aprobación de las cuentas del año 2004.

	<u>SARRERAK</u>	<u>GASTUAK</u>
Aurreko saldoa (2003/31/12)	1.920,16	
Bazkide kuota	1.390,01	32,68
Donostiako Kultur Patronatua (Dirulaguntza)	751,00	
Orona	1.422,05	
Interesak	7,15	
Beka	540,00	540,00
Tokiko Bilduma (Kudeaketa)	8.305,00	8.695,70
Fototeka	596,00	301,94
Kudeaketa		94,92
Estiba Buletina	600,00	548,38
Altzanet Proiektua	1.578,00	1.529,68
Artxibo Dokumentuak		24,30
Informatika Materiala		1.778,60
GANBARA Bilduma		301,00
GANBARA Bilduma-Erakusketa	1.365,09	1.780,54
Egutegia	450,50	587,00
Argitalpenak		103,71
Txangoak		64,18
Besteak		147,84
GUZTIRA . . .	18.924,96	16.530,47

SALDOA (2004/12/31): 2.394,49 €

EUSKADIKO KUTXA 1.340,33

Altza, 2005ko Urtarrilaren 12a.

- **KOBRATU EDO ORDAINDU GABE**

	+	-
Saldoa (2004/12/31)	2.394,49	
Tokiko Bilduma (Kudeaketa)	2.800,00	2.800,00
Estiba		100,00
Egutegia	450,00	
Beka		810,00
Fototeka	288,00	
	5.932,49	3.710,00

Saldoa (2004) ≈ 2.222,49 €

4. 2005. urterako egitasmoa / Plan de actividades para el año 2005.

lazko lan-eskemarekin jarraitzea erabaki zen, ondoko aipamen berezi hauek eginez:

- Lekukoak proiektua: 2004. urtean hasiera eman diogun proiektuari egitasmo sendo bat bihurtzea, helburuak, jarduerak eta finantziazioa finkatuz.
- Ganbara Bilduma: erabaki zen objektu berriak erosten jarraitzea. Era berean, erabaki zen urtean zehar erakusketak bat prestatzea, Tomasene kultur etxearen inaugurazioari lotuta egon zitekeena.
- Argitalpenak: 2005. urtean Hautsa Kenduz argitaratuko dugu. Honetatik aparte, bazkide bat galdutako ogibideei buruz egiten ari den ikerketa argitaratzen saiatzea onartu zen, eta ahal izanez gero Ganbararen erakusketarekin lotu.
- Eskolen arteko argazki lehiaketa bat antolatu eta datorren urteko egutegia argazki hauekin osatu.
- Altzaret: ohiko ildoak jorratuz gain, Ganbararen katalogoa Interneten eskaintze saiatu.
- Txangoak: Hiru txango aurreikusten dira: Errioxara, Aranzadi elkartarekin batera antolatuz; Nafarroako Garaio eta Gorriti gazteluak; Araiako ermita bisigutikoa. Saiatuko gara txango hauen data zehatzak denbora gehiagorekin bazkideei helarazten.

Se decidió continuar con las líneas de trabajo del año anterior. Además, se decidió también lo siguiente:

- Proyecto Lekukoak: Dotar al joven proyecto iniciado en 2004 de un plan trabajo de futuro, con los objetivos, actividades y financiación bien definidos.
- Colección Ganbara: Se decidió continuar con la adquisición de nuevos objetos, así como montar una exposición haciéndola coincidir con la inauguración de la casa de cultura Tomasene.
- Publicaciones: Este año publicaremos un nuevo número de Hautsa Kenduz. Además, intentaremos publicar también la investigación que sobre oficios desaparecidos está realizando una socia de AHM, y, a ser posible, coordinarla con las exposiciones de Ganbara.
- Organizar un concurso escolar de fotografía, que sirva también para el calendario del año 2006.
- Altzaret: intentar ofrecer a través de Internet el catálogo de la Colección Ganbara.
- Excursiones: Se prevén tres: La Rioja, organizada junto a Aranzadi; los castillos navarros de Garaio y Gorriti; ermita visigótica de Araia. Se procurará informar de las fechas con mayor antelación.

5. Bazkide berrien onarpena / Admisión de nuevos soci@s.

BAZKIDEAK:

Elkartea handitzen jarraitu du 2004. urtean, hamar bazkide berrien eskaera dela medio: MIREN IRURETAGOiena IÑARRA, MANOLY PULIDO FRANCO, JUAN MARI FERNANDEZ CALVO, JOSE GUILLERMO LOPEZ IRIGOYEN, BORJA LEOZ ZALDUA, NEKANE EIZAGIRRE INTXAUSPE, VICENTE INDAVEREA PUY, ANGEL ALMEIDA SEISDEDOS, NIEVES MARTINEZ MENDEZA, JOSE IGNACIO FERRER GONZALEZ.

Urteko Batzar Nagusian lau bazkideen baja erabaki dira: M^a Aranzazu Martínez Solana, Francisco Javier López de Luzuriaga, Natalia Montes, eta M^a Gemma Belascoain Balenciaga. Azken hau berak eskatuta eta aurreko hiruak kuota ez ordaintzeagatik.

SOCIOS-AS:

La Asociación ha continuado creciendo a lo largo de 2004, y cuenta con diez nuevas solicitudes: MIREN IRURETAGOiena IÑARRA, MANOLY PULIDO FRANCO, JUAN MARI FERNANDEZ CALVO, JOSE GUILLERMO LOPEZ IRIGOYEN, BORJA LEOZ ZALDUA, NEKANE EIZAGIRRE INTXAUSPE, VICENTE INDAVEREA PUY, ANGEL ALMEIDA SEISDEDOS, NIEVES MARTINEZ MENDEZA, JOSE IGNACIO FERRER GONZALEZ.

En la Asamblea General se decidió dar de baja a cuatro socios-as: M^a Aranzazu Martínez Solana, Francisco Javier López de Luzuriaga, Natalia Montes, y M^a Gemma Belascoain Balenciaga. Esta última voluntaria y los anteriores por impago de cuotas.

6. Bestelakoak / Ruegos y preguntas.

Besterik gabe batzarra amaitutzat eman zen.

Sin otro particular la asamblea general se dio por terminada.

Idazkaria

Lehendakaria

Iñigo Landa

Jon Serrano